

# Euskarazko tokian tokiko prentsaren eduki analisi konparatiboa: Debabarreneko azterketa

*Análisis comparativo de contenido de la prensa local en Euskara: Estudio de Debabarrena*

Comparative analysis of local media content in Basque: research in Debabarrena

Alazne Aiestaran Yarza<sup>1</sup>

zer

Vol. 16 - Núm. 31  
ISSN: 1137-1102  
pp. 203-223  
2011

*Recibido el 18 de marzo de 2010, aceptado el 22 de agosto de 2011.*

## Laburpena

Debabarrena eskualdean euskara hutsean kaleratzen diren sei herri-aldizkariaren (...*eta kitto!*, *Pil-pilean*, *Barren*, *Berriketan*, *Kalaputxi* eta *Drogetenitturri*) edukiak aztertu eta alderatzen dira hurrengo lerroetan. 2000-2004 bitartean 6 kazetetan argitaratu ziren kazetaritza-genero eta gaiak aztertzen dituen doktore tesia<sup>2</sup> abiaburu izanik, 2009an argitalpenen egoera zertan zen jaso nahi izan da. Hots, aldizkariaren ezaugarrietan, edukietan eta horiek euren herrietan ematen duten zerbitzuan izan diren aldaketak aztertu dira lan honetan.

**Gako-hitzak:** tokian tokiko prentsa, euskara, kazetaritza-generoak, gaiak.

## Resumen

En el siguiente artículo se ha hecho una comparativa del análisis de contenido de la prensa local vasca editada en Debabarrena. El texto tienen como punto de partida, la tesis doctoral que analiza los géneros periodísticos y temas de las seis revistas locales (...*eta kitto!*, *Pil-pilean*, *Barren*, *Berriketan*, *Kalaputxi* y *Drogetenitturri*) que se publican en la mencionada zona. Partiendo de los datos obtenidos en la tesis doctoral, se pretende conocer cuál era la situación del sistema comunicativo vasco en Debabarrena a finales de la década (2009). Es decir, cuales eran las características de las publicaciones, cuáles eran los contenidos, cuál era el servicio que prestaban en la comarca y cuáles habían sido los cambios más significativos respecto a la etapa 2000-2004.

**Palabras clave:** prensa local, euskara, géneros periodísticos, temas.

<sup>1</sup> Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, alazne.aiestaran@ehu.es.

<sup>2</sup> AIESTARAN, Alazne (2009). *Deba Barreneko Euskarazko komunikazio-sistema: tokian tokiko aldizkariaren kazetaritza-genero eta gaien analisisa 2000-2004 bitartean*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

### **Abstract**

In the following article a comparison about the content of the local Basque press published in Debarrena has been done. This text takes as its starting point, the doctoral thesis that analyzes journalistic genres and emergent themes in the six local magazines (*...eta kitto!*, *Pil-pilean*, *Barren*, *Berriketan*, *Kalaputxi* y *Drogetenitturri*) published in this region. Setting off from the results obtained from the thesis we want to know what the situation of Basque communication system in Debarrena is at the end of the decade (2009). In others words, what the publications' characteristics are, which the contents are, which the service provided in the country is and which the most significant changes regarding the phase 2000-2004.

**Keywords:** local press, basque, genres and emergent themes.

## 0. Sarrera

80ko hamarkadaren bukaeran tokian tokiko lehenengo komunikabideak sortu eta 90. hamarkadan euskarazko herri aldizkarien loraldia gauzatu zen Euskal Herriko zenbait txokotan, herri eta eskualde mailako komunikabide txikiak sortuz. Euskara talde eta kultur elkarteek bultzatu zituzten egitasmo gehienak; haien aitzindari, prentsa idatzian Arrasate Press eta Ttipi-ttapa<sup>3</sup> izan ziren 1988an eta 1989an hurrenez hurren.

Debabarrenean<sup>4</sup> urte berean Eibarko ...eta kitto! aldizkaria sortu zen, ondoren, 1992an Elgoibarko Barrenek ikusi zuen lehenengoz argia. Bi urte berandua go, 1994an Ermua eta Mallabiko Drogeteniturri kaleratzen hasi zen, 1996an Soraluzeko Pil-pilean, 1998an Debako Berriketan eta 2001ean Mutrikuko Kalputxi jaio zen. Mikel Irizarrek zioen moduan, euskarazko herri-aldizkarien kontzentrazio handiena Deba arroan gertatu zen 90. hamarkadan (Irizar, 2001). Izan ere, “80. hamarkada hartan, euskarak, komunikazio hizkuntza gisa, aldizkari lokal jaioberrietan aurkitu zuen habia epela. Eta informazio lokalaren eta euskararen uztartze horretatik etorri da euskarazko kazetaritzaren garapenean atalik itxuraz xumeena, baina errealitatean sendoen txertatua” (Garmendia, 2005:23).

Lan honetan Debabarrenean euskara hutsez eta hurbileko informazio orokorra argitaratzen duten kazeta guztiak aztertu dira. Hots, Ermua eta Mallabiko Drogeteniturri hilabetekaria, Eibarko ...eta kitto! astekaria, Soraluzeko Pil-pilean hamabostekaria, Elgoibarko Barren astekaria, Debako Berriketan hilabetekaria eta Mutrikuko Kalaputxi hilabetekaria.

Ikerlana burutzeko, Deba Barreneko Euskarazko Komunikazio-sistema: Tokian tokiko aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien analisisia 2000-2004 bitartean doktore tesian biltzen diren datuak, 2009ko datuekin alderatu dira. Batetik, 2000-2004 tartean aldaketak eta bateratze-prozesurako ahaleginak egin zirelako aztergai den eskualdean eta bestetik, 2009an krisi ekonomiko orokorrak eragina izan zuelako eskualdeko agerkari guztietan.

2000. urtea erabakigarria izan zen hurbileko informazioa lantzen duten komunikabideen esparruan. Izan ere, milurteko berria, aldaketa, mugimendu eta garapen handiko garaia izan zen euskarazko tokian tokiko prentsa idatziarentzat eta horrek, ikertzeko interesgarri bilakatu zuen. Aldaketa horiek eragina eta erantzuna izan zuten Debabarrenean. 2003ko maiatzean Debabarreneko euskara elkarte eta kultur elkarteek lehen urratsak ematen hasi ziren herri-aldizkarien bateratze-prozesurako eta eskualde osoan kaleratuko zen astekari bat sortzeko bideragarritasun-plan ekonomikoa egin zuten Debabarrenean<sup>5</sup>. Horretan ari zirela, bailara osorako

<sup>3</sup> Lehen alea, 1981eko neguan argitaratu zen hiru hilean behineko maiztasunaz. 1989an aldizkariaren egitura osoa goitik behera aldatu eta hamabostekari bilakatu zen (Irigoien, 1992).

<sup>4</sup> Gipuzkoako mendebaldean kokatua dago Debabarrena eta 8 herrik osatzen dute eskualdea. Batetik Bizkaikoak diren Ermua eta Mallabiak, bestetik, Gipuzkoakoak diren Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuk.

<sup>5</sup> Alboan zuten Debagoiena eskualdeko eredia erreferentzia gisa hartuta ekin zioten Debabarrenean multimedia egitasmoa sortzeari. 2000ko ekainean Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba sortu zen, Deba Goiena bailarako egitasmo multimedia bat kudeatzeko. Horrela, 2000ko abenduaren 1ean, *Goienkaria* Deba Goiena eskualdeko astekaria jaio zen eta 2001eko urriaren 19an bailarako aldizkari ezberdinak (*Arrasate Press*, *Berrigara*, *Aretxagazeta*, *Kontuola*, *Goibekokale*, *Ze berri?* eta *Txirrito-*

telebista sortzeko aukera azaldu zen Hamaika Telebista Hedatzeko Taldearen<sup>6</sup> eskutik. Debabarrenean emititzeko baimena eskuratu zuten arren, 2010ean ez zegoen eskualde osorako teledistribuzio proiektu komunik ere ikergai den eskualdean.

2009. urtean Debabarreneko aldizkari gehienak egoera ekonomiko samurra izatetik, krisi ekonomiko orokorraren ondorioen eragina izatera pasa ziren. Egoera horrek aldizkarien edukietan zein ondorio izan zituen frogatzeko, 2009. urteko produkzioa aztertzea erabaki da.

Bi epe ezberdinetan aldizkarien edukien konparazioa egiteaz gain, epe tarte horretan agerkeriek izan zuten bilakaera eta aldaketak bildu dira. Halaber, eraldatze horrek edukietan izan zuen eragina zein eta nolakoa izan den ikertu da.

## 1. Ikerketaren helburuak, hipotesiak eta erabilitako metodologia

Debabarreneko euskarazko tokian tokiko prentsa bere osotasunean ikertu duen tesiarren datuak eguneratzea izan da ikerlan honen helburu nagusia. Orobat, euskarazko herri prentsan 20 urteko ibilbidea duen bailaran argitaratzen diren sei kazeten ezauzgarriak jaso eta erkatu nahi izan dira; Debabarreneko euskarazko komunikazio-sistema anitza baita. Espektra zabala eta askotarikoa delako oso: maiztasunez, tiradez, lan-taldeen egitura eta antolaketaz.

Bestalde, ekonomian sasoi latzak izan ziren urte horietan, esperientzia eta errealtate ezberdinak islatu gura izan dira eta etorkizuneko maparen diseinuaren aurreikuspena egin.

Ikerlan honetan finkatu diren helburuak kontuan hartuta, honako hipotesi hauek izan dira lanaren abiagune.

1. 2009an Debabarreneko aldizkariak eutsi egin zieten euren edukiei. Hor-taz, 2000-2004 tartean argitaratu zituzten kazetaritza-genero eta gai berdintsuak argitaratu zituzten 2009an.

---

*la) Goienkarian* bildu ziren hiru edizio ezberdin sortuz. 21.500 aleko tirada zuten eta hiru edizioekin laurogeita hamasei orrialde betetzen zituzten astero. 2006an herrietako hiru edizioek bat egin zuten *Goienkariaren* atal bihurtuz. Azken aldaketa horren bitartez eskualdean 19.000 ale banatzen dira. 2004ko otsailetik aurrera, astelehenetan *Asteleheneko Goienkaria* kaleratzen hasi ziren, harpidetzaren bitartez edo egunkari saltokietan ordainduz banatzen dira bere 5.000 aleak. 2000ko maiatzean Arrasate eta Aretxabaletako teledistribuzio bat egin eta *GoITB* Deba Goiena eskualdeko teledistribuzio sortu zuten. Multimedia proiektua borobiltze aldera, interneten *Sustatu.com* eta *Goiena.net* jarri ziren martxan, *Arrasate irratia* (udal irratia) Goienaren kudeaketa sarean dagoela ahaztu gabe. 2010eko udazkenetik Goienak 2010eko urritik aurrera sarea ardatz hartu eta hedabide multimedia integral moduan hezur-mamitu eta Interneteko webgunea berri eta egokitzeko ekimena jarri zuten martxan, dena Goiena izenpean.

<sup>6</sup> Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea 2006ko irailean sortu zen LTDaren lizentzien lehiaketarekin. Komunikazioari lotutako 6 enpresen arteko akordioa gauzatu zen: EUSKALTEL, EKT (Berria eta Hitzaren enpresa argitaratzailea), CMN (Deia, Diario de Noticias, Noticias de Gipuzkoa eta Noticias de Alavako enpresa argitaratzailea), EKHE (Gara eta Journal eko enpresa argitaratzailea), BAINET teledistribuzio ekoiztetxea eta ELKAR, Edukien enpresa. Hamaikak 10 udal-mugapenetan lortu zuen emititzeko lizentzia: Bilbon, Donostian, Gasteizen, Durangaldean (Durango), Debabarrenean (Eibar), Oarso-Bidasoan (Irun), Ezkerraldean (Barakaldo), Mungian, Uribe Kostan (Getxo) eta Laudion. 2010eko otsailean Hamaika Bilbok bakarrik emititzen zuen.

2. 2009an Debabarreneko komunikazio-sistema 2000-2004an baino profesionalagoa zela esan daiteke.
3. Aldizkarietan izan ziren forma eta egitura aldaketek edukietan eragin zuten.
4. Etorbizuna diseinatzeko orduan krisi ekonomiko orokorra eragozpen bihurtu zitekeen Debabarrenean.

Ikerlan honetan finkatu diren helburuak lortzeko eta hipotesiak frogatzeko, ikerketa zientifikoak egiteko erabili ohi diren ikerketa-eredu nagusiak erabili dira: kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Metodo kuantitatiboan artean, eduki analisia erabiltzea hobetsi da. Komunikabideen mezuak aztertzea baita haren zeregin nagusia. “Eduki analisia, metodologia kuantitatiboaren metodo modura ulertuta, komunikazioak aztertzeko teknika-sorta bat da; beraz, edozein komunikazio eduki azter daiteke” (Zabaleta, 1997: 180). Eduki-analisiaren bitartez, sei herri-aldizkariotan 2009. urtean kaleratu ziren kazetaritza-generoak eta gaiak zeintzuk eta nolakoak ziren aztertu dira.

Lagina aukeratzeko, Debabarrenean euskaraz kaleratzen diren sei aldizkariak hartu dira kontuan eta 2009an argia ikusi duten 17 aldizkariak osatu dute ikerlan honetarako lagina. Urteko hilabete gorabeheratsuenak (urtarrila, uztaila, abendua)<sup>7</sup> alde batera utzi dira, edukietan eta datuetan eragina izan dezaketelako. Bestalde, aldizkariaren maiztasun ezberdinak ere aintzat hartu dira. Emaizta fidagarrienak lortzeko asmoz, honako hautaketa sistema erabiltzea erabaki da:

- a) Hilabetekarien kasuan, maiatzeko eta urriko aldeak ikertu dira, hots, *Drogeteniturriren* 2 ale<sup>8</sup>, *Berriketanen* 2 ale<sup>9</sup>, *Kalaputxiren* 2 ale<sup>10</sup>.
- b) Ikerketa burutu zenean, Debabarrenean hamabostean behin kaleratzen den aldizkari bakarra zegoen, Soralezeko *Pil-pilean*. Ikerlan honetarako 3 ale<sup>11</sup> aztertu dira, Martxoko lehenengo hamabostaldikoa, maiatzeko bigarren hamabostaldikoa eta urriko lehenengo hamabostaldikoa.
- d) *...eta kitto!* eta *Barren* aldizkariak astekariak izanik, otsaileko, martxoko, maiatzeko eta urriko zenbakiak aukeratu dira eta horietako bakoitza hilebete bakoitzeko aste bati dagokio. Alegia, otsailean kaleratu zen lehenengo asteko aldizkaria, martxoan argitaratu zen bigarren asteko aldizkaria, maiatzean kaleratu zen hirugarren astekoa eta urrian argitaratu zen laugarren astekoa. Guztira, *...eta kitto!*-ren 4 ale<sup>12</sup> eta *Barrenen* beste horrenbeste<sup>13</sup> aukeratu dira.

<sup>7</sup> Urtarrilean oro har astekari eta hamabostekariak lehenengo astean ez dute alerik kaleratzen, gabonetako oporrak direla eta. Uztaileko bigarren hamabostaldian astekariak ez dute alerik argitaratzen eta abenduan urtekariak (urteko edukiei errepasoa ematen dizkieten ale bereziak) kaleratzen dira.

<sup>8</sup> *Drogeteniturri* (Ermua eta Mallabiko hilabetekaria): 168. eta 172. zenbakiak.

<sup>9</sup> *Berriketan* (Debako hilabetekaria): 129. eta 134. zenbakiak.

<sup>10</sup> *Kalaputxi* (Mutrikuko hilabetekaria): 84. eta 88. zenbakiak.

<sup>11</sup> *Pil-pilean* (Soralezeko hamabostekaria) 195., 199. eta 207. zenbakiak.

<sup>12</sup> *...eta kitto!* (Eibarko astekaria): 666., 671. 679. eta 695. zenbakiak.

<sup>13</sup> *Barren* (Elgoibarko astekaria): 685., 690., 698. eta 716. zenbakiak.

Argitalpenetan agertzen diren sail guztietako edukiak aztertu dira: informazio-testuak, iritzi testuak, eta testuen lagungarri diren irudi, grafiko eta argazkiak. Testua eta berau ilustratzen duen argazkia, item bakar gisa konputatu da, ez baita bereizketarik egin analisi unitatearen tamainaren arabera. Alde batera utzi da aldizkarietan agertzen den publizitatea, horrek beste ikerketa bat eskatuko lukeelako.

*Deba Barreneko Euskarazko Komunikazio-sistema: Tokian tokiko aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien analisisa 2000-2004 bitartean* doktore tesirako erabili zen kategoria sistemaz baliatu gara datuak kodifikatzeko. Tokian tokiko hedabideen sektorea aztertzeko aurretiaz egindako lanak kontuan hartuta osatu zen kategoria sistema eta horretarako hiru iturri nagusi erabili ziren: Idoia Camachoren “Herri-aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999” doktore tesia, Jotxo Larrañaga, Miren Gabantxo eta Asier Arangurenen “Sei herri-aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat” eta María Pilar Diezhandino eta César Cocaren “La nueva información” lana.

Honatz laburtuta<sup>14</sup> lanerako erabili den kategoria sistema fitxa:

**Kazetaritza-generoak:** Informazioa (albistea, albiste laburra, argazki-albistea), interpretazio-generoak (erreportajea, elkarrizketa, kronika), iritzia (editoriala, artikulua, kritika, inkesta, iruzkina, zutabea, irakurleen gutunak), literatura (ipuinak, bertsoak, fotonobela), komikia, zerbitzuak (agenda, zerbitzu-informazioa, informazio erabilgarria, denbora-pasak, salerosketa eta trukeak), beste batzuk.

**Gaiak:** Politika (udala, aldundia, Eusko Jaurlaritza, alderdiak, Euskal Herriko gatazka, erakunde ezberdinak, gerrak eta ejertzitoak, beste), ekonomia (enpresa, lan bizitza, nekazaritza/abeltzantza, itsaslana/arratza, merkataritza/finantzak/burtsa, beste), gizarte-gaiak (taldeak, giza laguntzak/arazoak, lanak, hezkuntza, osasuna, ingurumena, gizarte ohiturak, zerbitzuak, beste), kultura (arte eszenikoak, arte plastikoak, gastronomia, literatura, komunikabideak, euskara, agenda, beste) kirola (talde kirola, banakako kirola, ehiza+xakea, kirol agenda/emaitzak, beste).

Metodo kuantitatiboan oinarrituz lortu diren datuak, aurretik 2000-2004 bitarteko emaitzekin<sup>15</sup> alderatu dira ikerlana osatzeko.

Arestian aipatu helburu eta hipotesiak frogatu ahal izateko, ikerkuntza metodo kualitatiboa erabiltzea ere ezinbestekoa izan da, datu kuantitatiboetan ageri ez den bestelako informazioa biltzeko batetik, eta ikerketa kuantitatibotik eratorritako emaitzak modu egokian interpretatu ahal izateko, bestetik.

Metodo kualitatibo interpretatzaileen baitan dauden teknika ezberdinen artean, talde eztabaida egitea erabaki da aldizkarietan 2009an zuzendari edo koordinatzaile lanetan ari ziren kideekin. Talde eztabaidaren helburua bertan parte hartzen dutenen aitopren eta azalpenak eragitea baita eta horien bidez ikertzen ari garen gaiaren inguruan informazio kualitatiboa lortzea. “Definiremos al grupo focal como una técnica de investigación social que privilegia el habla, cuyo propósito radica en propiciar la interacción mediante la conversación acerca de un tema u

<sup>14</sup> Kategoria sistema osoa eta zehatza, AIESTARAN, Alazne (2009). *Deba Barreneko Euskarazko komunikazio-sistema: tokian tokiko aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien analisisa 2000-2004 bitartean*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, lanean aurkitu daiteke.

<sup>15</sup> Alazne Aiestaran, *op.cit.*

objeto de investigación, en un tiempo determinado, y cuyo interés consiste en captar la forma de pensar, sentir y vivir de los individuos que conforman el grupo”<sup>16</sup> (Alvarez Gayou, 2003).

Eibarren ...eta kitto! Euskara Elkartek duen egoitzan egin zen talde eztabaida 2010eko martxoaren 4an, arratsaldeko 17:00-18:45etara bitartean. Bertan izan ziren, ...eta kitto!, *Pil-pilean*, *Barren*, *Kalaputxi* eta *Drogeteniturriren* kideak<sup>17</sup>. *Berriketan* aldizkariko koordinatzaileari<sup>18</sup>, aldiz, bakarkako elkarrizketa egin zitzaion, ez baitzuen Eibarrera etortzerik izan. Talde eztabaidarako gidoia honako galdera hauek osatu zuten:

1. 2004tik 2010era bitartean zuen produktuetan izan diren zein aldaketa nabarmenduko zenituzkete?
2. Krisi ekonomikoak eta diru-laguntzen jaitsierek nolako eragina eta ondorioak izan dituzte eta izaten ari dira zuen produktu eta proiektuetan?
3. Lau herri aldizkari itxi egin dira urtebetean krisia dela eta. Zein da horren gainean egiten duzuen irakurketa?
4. Sektorea arriskuan dagoela esango zenukete?
5. Oro har, politikoen aldetik eta udalen aldetik presioa nabaritzen duzue gaiak lantzeko orduan?
6. Sektore hau diruz inoiz ez da soberan ibili. Etorkizuna nola ikusten duzue?
7. Badago diru iturri berriak lortzeko aukerarik?
8. Bost urte barru nola ikusten dituzue produktuak, paperean, sarean, bietan...?
9. Guztiok ikusten duzue bailara honetako produktuen jarraipena 5 urteren buruan?
10. 2003an izan zen saiakera bat Debabarrenean multimedia proiektu bat sortzeko. Bideragarri eta posible ikusten duzue egitasmo komun bat sortzea hemendik epe labur edo ertainera?
11. Atari digitalak, web orriak dituzuenok, zein funtzio aitortzen dituzue web-ari?

## 2. Zertan zen Debabarreneko komunikazio sare euskalduna 2009an?

Hainbat aldagaiaren arabera definitu dira Debabarreneko komunikazio-sistemaren ezaugarriak ikerlan honetan. Batetik, sei aldizkariak argitaratutako kazetaritza-generoak eta gaiak aintzat hartu dira. Bestetik, lan-taldearen profesionaltasun-maila, edizio digitalak eta teknologia berriak, krisi ekonomikoaren eragina eta etorkizunaren diseinua ardatz izan dira eskualdeko komunikazio sistemaren diagnostia burutzeko.


<sup>16</sup> Talde eztabaida gizarte-ikerkuntza teknika gisa definituko dugu, zeinak mintzamenaren laguntzen duen eta denbora jakin batean gai edo ikergai baten inguruan solasaldiaren bitartez interaktibitatea bilatzea duen xede. Bere garrantzia, taldea sortzen duten kideen pentsatzeko, sentitzeko eta bizitzeko modua antzematean datza.

<sup>17</sup> ...eta kitto!-ko Koldo Mitxelena, *Barren*eko, Ainhua Andonegi eta Ainara Argoitia, *Pil-pilean*eko Leire Iturbe eta Miren Narbaiza, *Drogeteniturr*iko Dorleta Vidal eta *Kalaputxi*ko Joseba Palenzuela eta Aitziber Andonegi.

<sup>18</sup> Iزارo Aulestiarte *Berriketan* hilabetekariko koordinatzaileari elkarrizketa 2010eko martxoaren 12an egin zitzaion.

## 2.1. Kazetaritza-generoen konparazioa

### 1. Grafikoa. Informazioaren erkaketa 2000-2004 eta 2009 artean.



Iturria: Autoreak landua.

2000-2004 bitartean Debabarreneko komunikazio-sistema euskalduna osatzen zuten sei aldizkarietan informazioa gailentzen zen kazetaritza-genero guztien artean; informazio kopurua %50etik gorakoa baitzen kasu guztietan. Albiste laburrak, albisteak eta argazki albisteak ziren nagusi informazioaren baitan eta ordena horretan.


Aurreko epean bezala, sei aldizkariotan informazioa gailentzen zen 2009an ere. Datuak argiak dira, sei kazetetan informazioaren kopuruak gainerako kazetaritza-generoen erdia baino gehiago izaten jarraitzen zuen. Atal horren baitan albiste laburrak, argazki albisteak eta albisteak gailendu ziren bigarren epe honetan.

Kazeta gehienetan epe batetik bestera informazioaren portzentajeak behera egin zuen 2-7 puntutan, bigarren epean iritzi-generoak eta zerbitzu-guneak indartu zirelako. *Berriketane* eta *Drogeteniturrri*, ordea, informazioa indartu zuten 2009an. Bi horien artean *Drogeteniturrri*ren kasua da aipagarriena, bertan informazioa 17 puntutan hazi baitzen. 2009an kazetaritza-generoen arteko oreka txikitu egin zen zerbitzu-gunea, iritzia eta literatura nabarmen jaitsi zirelako eta aldizkariaren eduki gehiena informazioan kontzentratu baitzen.

Zerbitzu-informazioa, agenda eta denbora-pasak ziren 2000-2004 bitartean sei aldizkarietan gehien agertzen ziren zerbitzuak. Halaber, aztertu ziren bi astekarietan (*...eta kitto!* Eta *Barrenen*) salerosketa eta trukeen saila oso indartsua zen, astero orrialde osoa kaleratzen zutelako doako iragarkiekin. 2000-2004 bitartean, gainontzeko kazetetan salerosketa eta trukeen atalak ez zuen arrakastarik izan, kasu batzuetan ez zelako inoiz argitaratu eta beste batzuetan, irakurleen artean ez zuelako jarraipen berezirik izan.



## 2. Grafikoa. Zerbitzuen erkaketa 2000-2004 eta 2009 artean.



Iturria: Autoreak landua.


Zerbitzu-gunean gora beherak izan ziren aldizkari ezberdinetan 2009an. Bakoitzaren bilakaera kontuan hartuz, *etakitto!*-k eta *Kalputxik* soilik egin zuten gora zerbitzuetan. Gainerako guztiek behera egin zuten; *Berriketan* hilabetekariak eta *Drogeteniturrrik* nabarmen jaitsi zuten euren zerbitzu eskaintza 2000-2004 bitartean zerbitzuen atalean kodifikatu ziren hainbat atal kendu zituztelako euren orrietatik. Alde batetik, Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturrri* eta Debako *Berriketan* hilabetekarietan 2009an ez zen denbora-pasarik kaleratu. Bestetik, 2000-2004 epean hilero kaleratzen zen sukalde errezetarik ez zegoen 2009an *Drogeteniturrin*. *Berriketan* hilabetekarian lehenengo azterketa epean kaleratu ohi ziren liburutegiko aholkuak ez ziren 2009an argitaratu. Aitzitik, *Drogeteniturrin* eta *Berriketanen* bestelako zerbitzua eskaintzen zuten sekzioek ikusi zuten argia 2009an, zorion agurren atalak eta intereseko telefonoak biltzen zituzten sekzioak hurrenez hurren.

Zerbitzuen barnean agenda eta zerbitzu informazioa errepikatu ziren gehien bigarren azterketa epean. *Barrenek* eta *Drogeteniturrrik* ez zuten denbora-pasarik argitaratzen baina gainerako agerkari guztietan denbora-pasen atalak protagonismoa zuen zerbitzuen baitan.

Oro har, Iritzia zen 2000-2004 bitartean hirugarren genero garrantzitsuena aldizkari gehienetan. Esaterako, Debako *Berriketan* hilabetekarian iritzia bigarrena zen eta zerbitzu-gunea hirugarrena. Nolanahi ere, iritziaren barnean irakurleen gutunak, kale-inkesta<sup>19</sup> eta zutabea izan ziren generorik landuenak ikerketaren lehenengo epean. Horrek, ordea, ez du esan nahi iritzi-genero horiek guztiak sei aldizkarietara erabiltzen zituztenik: *Kalaputxi* eta *Berriketan* hilabetekarietan ez zen iritzi-zutaberik argitaratzen eta 2000-2004 bitartean

<sup>19</sup> Herritarren artean gai bati buruzko iritziak ezagutzeko erabiltzen da inkesta; aztertu diren aldizkarietan "Kale-inkesta" izendatzen den atala da. Oro har, eremu urriko prentsan maiz erabiltzen den generoa da. Normalean egiten diren inkestak galdera bakarrekoak izaten dira. Hala ere, badira salbuespenak galdera gehiago dituztenak.

### 3. Grafikoa. Iritziaren erkaketa 2000-2004 eta 2009 artean.



Iturria: Autoreak landua.

*Drogetenituri* eta *Berriketan* ez zuten irakurleen gutunik kaleratzen.

2009an aldizkariaren bigarren zutabe nagusia iritzia bilakatu zen eta irakurleen gutunak eta zutabea izan ziren iritzi genero erabilienak. *Kalaputxin* izan ezik, gainerako aldizkari guztietan lantzen zuten kaleko inkesta. 2009an, aldiz, *Kalaputxik* bakarrik argitaratzen zuen editoriala. Aurreko epean, *Kalaputxik* eta Soraluzeko *Pil-pilean* hamabostekariak kaleratzen zuten editoriala, baina Soraluzeko agerkariak 2009an ez zuten editorialik sartzen bere orrietan.


Iritziari eskaintzen zitzaion tokia esan daiteke erabat lotuta zegoela aldizkariaren maiztasunarekin. Hots, zenbat eta maiztasun handiagoa izan agerkariak, orduan eta toki gehiago egiten zitzaion iritziari: astekari (*..eta kitto!* eta *Barren*) eta hamabostekarietan (*Pil-pilean*) iritziak gora egin zuen 2009an hasierako ikerketa epearekin alderatuz. *..eta kitto!*-k zinea, literatura eta musika kritikak gehiago landu zituen 2009an eta horrez gain, zuzenbide eta osasunari buruzko aholkuak zutabe gisa eta irakurleen gutun moduan landu zituen. Horrek eragin nabarmena izan zuen iritziaren portzentajeak gora egiteko orduan. *Pil-pilean* hamabostekariak 2009an iritzi atala indartu zuen zutabe-egile berriei esker. *Barren*en iritzi-artikuluak eta kolaborazioak hazi egin ziren 2009an eta horrek iritzi atala trinkotzea ekarri zuen.

#### 2.2. Gaien konparazioa

Grafikoan argi eta garbi ikus daiteke gizarte-gaiek oso portzentaje altuak zituztela bi epeetan, aldizkariaren gaitegiaren ia erdia (%35etik gora agerkari guztietan eta bi epeetan) gizarte-gaiei eskaintzen baitzitzaien.

Ikerketan alderatu diren bi epeen arteko portzentajeetan ez dago gora behera esan-guratsurik, aldizkari guztiek eutsi ziotelako euren gaitegiaren zutabe garrantzitsua zenari, gizarte-gaiei alegia. Hala ere, atentzioa ematen du *Pil-pilean* aldizkariak gizarte-gaiekin 2009an izan zuen beherakada. Jaitsieraren arrazoi nagusia bestelako gaien emaitzetan aurki dezakegu: 2000-2004 bitartean, Soraluzeko hamabostekariak oso tarte gutxi eskaini zien kirolari eta ekonomiari. Bi horiexek izan ziren hain zu-

#### 4. Grafikoa. Gizarte-gaien erkaketa 2000-2004 eta 2009 artean.




Iturria: Autoreak landua.

zen ere 2009an gehien indartu ziren gaiak agerkarian eta horrela, gaien arteko oreka handiagoa lortu zuen bigarren epean. Are gehiago, ekonomia eta politika gaitan Soraluzeko hambostekaria gainerako guztien aurretik kokatu zen 2009an.

2000-2004an gizarte-gaien baitan gizarte-ohiturak (aisialdia, herritarren bitzita, herritarren azturak, jaiak...), zerbitzuak, hezkuntza eta ingurumena errepikatu ziren gehien. Era berean, 2009an gizarte-ohiturak eta zerbitzuak izan ziren protagonista aldizkari guztietan. Nahiz eta hezkuntza eta ingurumena gai garrantzitsuen artean egon, 2009an gaien aniztasuna argiagoa zen gizarte-gaien baitan besteak beste, herrilanak, taldeak eta gizarte laguntzak maiz agertzen zirelako.

#### 5. Grafikoa. Kultura gaien erkaketa 2000-2004 eta 2009 artean.




Iturria: Autoreak landua.

Datuek erakutsi bezala, kultura izan zen 2000-2004 bitartean gaitegiaren bigarren blokerik esanguratsuen, %20tik gorako portzentajearekin sei aldizkariotan. Arte eszenikoak (musika batik bat), literatura eta komunikabideak izan ziren kultura-gairik garrantzitsuenak epe horretan.

2009an oro har aldizkari guztiek kultura indartu egin zuten euren gaitegiaren baitan. Aurreko epeko portzentajeei eutsi zieten *...eta kitto!*k eta *Pil-pilean*-ek, baina gainerako lau kazetek gora egin zuten kultura gaietan. *Drogetenitturi* eta *Berriketan* hilabetekarietan kultura bilakatu zen gaitegiaren ardatz nagusia 2009an. Kulturaren baitan oro har gai bertsuak izan ziren bigarren epean protagonista. Hau da, arte eszenikoek, literaturak eta komunikabideek agerpen maila altua izan zuten argitalpen guztietan. Era berean, euskararen gaiak kultura-gaien barnean protagonismo handiagoa hartu zuen 2009an agerkari guztietan *Kalaputxin* ezin ezik.

## 6. Grafikoa. Kirol gaien erkaketa 2000-2004 eta 2009 artean.



Iturria: Autoreak landua.

Oro har, hirugarren gai nagusia kirola zen aldizkari guztietan. 2000-2004 epean kirola gehiago lantzen zuten *...eta kitto!* eta *Barren* astekariek. Beraz, zenbat eta maiztasun handiagoa izan aldizkariak, orduan eta toki gehiago eskaintzen zioten kirolari. Eibarko eta Elgoibarko agerkariak astero 2-3 orri oso kaleratzen zituzten kirol ezberdinei tarte eginez. Oro har, herri bakoitzean oihartzun gehien zuten kirolek isla zuten aldizkarietan: futbola, pilota, txirrindularitza, mendia eta atletismoa beste. Gainera, herri guztietan kirol amateurrari kirol profesionalari baino askoz toki gehiago eskaintzen zitzaion.

Aurreko epeko joera bera mantenduz, kirola izan zen 2009an kazeta guztietan hirugarren blokerik landuena. *...eta kitto!*k eta *Barren*ek eutsi egin zieten aurreko epeko portzentaje bertsuei. Dena den, kirolek indarra hartu zuten 2009an gainerako aldizkarietan. *Berriketan* hilabetekarian, ordea, erdira jaitsi zen kirol gaien eskaintako portzentajea. Behera egitearen arrazoi nagusia diseinu eta sekzioen aldaketan aurki daiteke, 2009an ez baitzuten kirola lantzeko atal berezirik, eta agertzen zirenean, albiste laburretan agertzen ziren tarte oso txikia eskainiz. Kontuak kontu, kirol-gaietan joera 2000-2004 epeko berbera da. Hots, futbola, mendia, pilota eta kirol agendak

gailentzen dira beste guztien artean. Bada atentzioa ematen duen ezaugarri bat astekariaren artean eta maiztasunari lotuta dagoena. Zenbat eta maiztasun handiagoa izan agerkariak, bertan dagoen kirol aniztasuna handiagoa da. ...*eta kitto!*n eta *Barrenen* gainerako aldizkarietan baino kirol gehiagori egiten zitzaion tokia.

### 2.3. Lan-taldeak indartuz edukietan eragin

2004ko egoerarekin konparatuz, aldaketak izan ziren agerkarietako lan-taldeetan. Orduan, ...*eta kitto!* eta *Barren* astekariak soilik kontsidera zitezkeen profesionalak, gainerako guztiak aldizkari erdi profesionalak edo ez profesionalak ziren. Alegia, bertan ari ziren langileak ez ziren Komunikazio Zientzietan lizentziatuak, kasu batzuetan ez zuten lan kontraturik eta beste kasu batzuetan aldizkariaren zutabe nagusia borondatezko lana zen. Aldizkariaren arteko edukien ezberdintasuna oso argi markatzen zuen egoera horrek. Hau da, Komunikazio Zientzietan lizentziatuak lanean ziharduten erredakzioetan kazetaritza-generoak ikuspegi profesionaletik lantzen ziren eta akademikoki modu egokian erabiltzen ziren. Generoen arteko oreka eta gaitegien aniztasuna nabarmena zen, kazetari tituludunak zebiltzan aldizkarietan (Aiestaran, 2007).

2009ra bitartean lan-taldeetan izan ziren aldaketek berretsi egiten dute orain arte esandakoa. Hots, Soraluzeko *Pil-pilean* aldizkarian egin ziren aldaketen artean aipagarriena, lan-taldea indartzearena da. 2007 eta 2008 bitartean 3 langile sartu ziren lan jardunaldi erdiko kontratuarekin. Aurretik, aldizkaria egiten zuen jende gehiena kolaboratzailea zen, koordinatzaileak ez zuen lan kontraturik eta ez zegoen Komunikazio Zientzietan lizentziaturik lan-taldean. 2009ko eduki-azterketak argi erakusten zuen, langile profesionalak (Komunikazio Zientzietan lizentziatutakoak) sartu ziren unetik, kazetaritza-generoak akademikoki hobeto lantzen zirela eta horien arteko oreka 2000-2004 bitartekoa baino handiagoa zela. Esaterako, 2009an iritzi atala nabarmen indartu zuten, zutabegile eta artikuluko egileen parte-hartzea handituz. Era berean, 2009an gaitegia zabalagoa eta anitzagoa zen aurreko epearekin alderatuta, horren erakusle garbia, kirolaren eta ekonomiaren presentzia handiagoa hamabostekarian. Edukiez gain, lan-taldea sendotzeko proiektu berriak martxan jarri ahal izatea ahalbidetu zuen: Plaentxia.com atari digitala 2007an sortu zuten.

Elgoibarko *Barrenek* 2009ko irailean langile bat gehiago kontratatu zuen egun erdiz. Langile hori Mendaron bizi zenez, Mendarori eskaintzen zitzaion arreta handitu egin zela argi antzeman zen edukietan.

Debako *Berriketan* hilabetekariko edukietan aldaketa ez zen horren nabarmena 2009an, langile profesionalak sartu berriak zirelako. 2000-2004 bitartean langile profesionalik gabe funtzionatu zuten borondatezko lana zutabe nagusi zela. 2009ko ekainean Komunikazio Zientzietan lizentziatutako langile bat egunean 4 orduz kontratatu zuten aldizkarirako.

Ermua eta Mallabiko *Drogetenitturrik*, Eibarko ...*eta kitto!-k*, eta Mutrikuko *Kalapatxik* ez zuten 2000-2004 epearekin alderatuz lan-taldeetan aldaketa nabarmenik izan eta aurreko epeko bideari eutsi zioten.

### 2.4. Diseinu aldaketek eta edizio digitalek publikoa erakarri

Arestian aipatu lan-taldeetako kanbioez gain, 2007tik aurrera nabarmenagoak izan ziren forma aldaketak sei agerkarietan.

2007aren hasieran ...eta kitto!k eta Barrenek zituzten web orrialdeak sarean. Aztertzen ari garen bigarren epe honetan, bai Eibarren eta baita Elgoibarren ere, edizio digitalak sendotzea izan zen helburu eta erronka nagusia, bi euskarriak uztartzen ahaleginginduz. Gainerako agerkeriek, ordea, bigarren epean jarri zituzten martxan euren web orriak eta edizio digitalak. Kasu batzuetan, lan-taldeen izandako aldaketan ondorio zuzena izan zen web orrien sorrera. Adibidez, Soraluzeko Pil-pilean-ek Plaentxia.com ataria 2007an sortu zuen, Komunikazio Zientzietan lizentziatutako bi langile kontratatu zituen. Drogetenituri hilabetekaria kaleratzen zuen Euskal Birusa kultur elkarteak, euskalbirusa.org ataria sortzeko diseinugilea egunean bi orduz kontratatu zuen. Mutrikuko Kalaputxik ez zion interneti garrantzi berezirik eman, euren helburua ez baitzen hilabetekaria eta egunerokotasuna uztartzea. 2009an Kalaputxi.com bloga sortu zuten eta bertan, papereko aldizkariaren pdf formatua eskaintzen zuten. Debako Berriketaren ez zuten sarerako jauzirik egin 2009an, papereko aldizkarian egindako aldaketek nahikoa buruhauste eman zituelako lan-taldeari.

Interneti buruz arestian aipatutakoek argi lagatzen dute sei aldizkariaren antolaketa eta lan egiteko moduek eragin zuzena zutela erronka berriei erantzuteko orduan. Hots, zenbat eta profesionalagoa izan, aldizkariak baliabide gehiago zuten garai berritara egokitzeke.

Halaber, Debabarreneko argitalpenetan lanean ziharduten kideen arabera, aurrea pausu handia izan zen aldizkari osoan kolorea sartzearena. Pil-pilean izan zen eskualdean aldizkari osoan kolorea sartu zuen aurrea 2007ko bukaeran. Jarraian 2008an Barrenek egin zuen apostua eta urte bereko azken hiruhilekoan ...eta kitto! ausartu zen kolorea bere orrietan finko bihurtzera, sortu zeneko 20. urteurrena ospatzeko. 2009ko urrian Berriketaren hilabetekariak aldizkari osoa kolorez argitaratzeari ekin zion. Kolorea aldizkarietan sartzearekin batera agerkerien diseinuaren berritzea etorri zen. Aldizkariaren zuzendari eta koordinatzaileen ustez, garrantzitsua izan zen kolorea aldizkarietan barneratzea, produktuak erakargarriago bihurtzeko ahaleginginean funtsezkoa suertatu zelako. Orobat, publizitate bezeroengan eragin positiboa izan zuen koloreak. ...eta kitto!, Barren, eta Pil-pilean aldizkariak 2008a urte ona izan zen publizitate sarrerei dagokienez.

Forma aldaketek agerian utzi zuten Debabarreneko aldizkari profesional, erdi profesional eta ez profesionalen arteko aldea nabarmena zela. Zenbat eta maiztasun handiagoa izan agerkeriek eta egitura profesionalagoa eduki, hobeto egiten zieten aurre berrikuntzei oro har, eta baita berrikuntza teknologikoei ere. “Kontuan hartu beharreko alorra da hori. Hedabideen mundu berezi honetan, oso da beharrezkoa berritapen teknologikoak etengabekoa izatea. Euskarri askotarikoetara jauzi egiteko, teknologiak behar ditu edozein taldek. Eta euskarri bakarrean irauteko ere, berdin. Berrikuntza teknologikorik gabe, atzera egin zuten gure artean sektore ekonomiko batek baino gehiagok” (Basterretxea, 2008 b: 124).

Beste alde batetik, erdi profesionalak edo ez profesionalak ziren aldizkarietan langile kualifikatu eta adituak lanean hasteak ekarri zituen profesionalizazioarekin lotutako aldaketak 2007tik aurrera, besteak beste, diseinuak berritzea eta edizio digitalak modu iraunkor batean martxan jarri ahal izatea. Pil-pilean eta Berriketaren aldizkariak izan ziren horren adibide garbia.

Salbuespenik gabe, 2004tik 2009ra bitartean euren tiradak<sup>20</sup> igo egin zituzten al-

<sup>20</sup> ...eta kitto!-k 2004an astero 7.850 ale banatzen zituen, 2009an 7.950. Barrenek 2004an 4.000 aleko tirada zuen astero eta 2009an 4.750ekoa. Pil-pilean hamabostero 1.920 ale zabaltzetik 2.000 ale

dizkari guztiek. Urteak pasa ahala, indarra galdu barik, Debarreneko tokian tokiko euskarazko prentsa idatziaren eskaera handiagoa bihurtu zela ondorioztatu daiteke.

## 2.5. Krisia, etorkizuna diseinatzeko zangoztraba

Krisi ekonomiko globalak izan zuen eraginik Debarreneko euskarazko komunikazio-sisteman. 2009. urtea galerekin bukatu zuten eskualdeko agerkari gehienek<sup>21</sup>. Halere, publizitatean, autofinantziazioan alegia, ez zen hain nabarmena izan jaitsiera, aldizkari gehienek, *Drogetenitturrik* izan ezik, aurreko urteko (2008ko) diru sarrerei eustea lortu baitzuten. Alabaina, 2010era begira krisiaren eragina nabarmenagoa zen euskal erakundeetako aurrekontuetan eta horrek zuzenean jo zituen tokian tokiko aldizkariak<sup>22</sup> 2010ean. Izan ere, herri ezberdinetako udalen eta Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundien diru-laguntzak jaitsi egin ziren 2010ean. Horren aurrean, gastuak murriztea ezinbestekoa zela onartzen zuten sei kazetetan ari ziren kideek. Murrizketa horiek langileen lan baldintzetan eragin zuzena izan zuten. Hots, 2010ean soldaten igoerarik ez aplikatzea edota aparteko ordainsaririk ez jasotzea izan ziren besteak beste, aldizkarietan hartu ziren neurriak kostuak gutxitzeko. Beraz, aurretik lan-baldintza eskasak zituen sektorea kinka larriagoan utzi zuen krisi ekonomikoak.

Debarreneko aldizkari profesional, erdi profesional eta ez profesionalen ari ziren kideak bat zetozen proiektu horietan langileen borondatea eta motibazioa giltzarria zela adierazteko orduan. Are gehiago eta urteetako esperientziak erakutsi bezala, egitasmoa zenbat eta profesionalagoa izan, egoera ekonomiko larrien aurrean, erabakigarriagoa bihurtzen zen langileen borondatea eta gogoia. Izan ere, erabat borondatez ari zirenak nekatuta eta erreta egon zitezkeen egoera ekonomiko larria izan ala ez, eta bai batean zein bestean etsi edo eutsi egiten zioten. Proiektu profesionaletan, aldiz, egoera ekonomiko txarrak zuzenean zeukan eragina lan-baldintzetan eta horrek langilerian eta bere motibazioan eragiten zuen. Beraz, langileak jasateko prest zeuden neurrian egingo zuen aurrera egitasmoak langileak zirelako proiektuen oinarri eta ardatz nagusi.

Orobat, 2010erako aurreikusita zeuden proiektuak alde batera utzi behar izan zituzten hainbat kasutan krisiaren ondorioz. *...eta kitto!*-k ezin izan zuen aldizkariaren orri kopurua gehitu, *Kalaputxik* eta *Drogetenitturrik* ez zuten aldizkari osoan kolorea sartzerik izan.

Beste alde batetik, auto-finantziaziorako bide berriak bilatu behar zirela argi zuten aldizkarietako kideek, diru-laguntzen menpekotasuna murrizteko eta proiektu bakoitzak beregaintasun handiagoa lortzeko. Ekonomikoki 2010. urtea, urte

---

zabaltzera heldu zen, horrela Soraluzeko etxe guztietan aldizkariaren banaketa bermatuz. *Berriketan* hilabetekariak 2004an 700 ale banatzen zituen. 2009ko ekainean hasi zuen berritze aroarekin batera etorri ziren *Berriketan* aldizkariako aldaketa nabarmenenak ere. Diseinu aldaketa eta koloreari tiradaren bikoiztea erantsi behar zaio, 2.000 alera igo baitzen. *Kalaputxik* 2004an hilero 1.920 ale kaleratzen zituen eta 2009an 2.000 alerekin Mutrikuko etxe guztietara heltzea lortu zuen. *Drogetenitturrik* 2004an 1.750eko tirada zuen eta 2.200 ale banatzen zituen 2009an.

<sup>21</sup> *...eta kitto!*, *Barren*, *Pil-pilean* eta *Drogetenitturri* agerkariak 2009. urtea defizitarekin amaitu zuten.

<sup>22</sup> Herrietako udaletatik, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietatik eta Eusko Jaurilaritzatik jasotzen zituzten diru-laguntzak Debarreneko sei aldizkariak 2010ean.

zaila izango zela aurreikusten zuten eta ordura arte, publizitatean nabaritu ez zuten jaitsiera hel zitekeela sumatzen zuten. Hori dela eta, 2010. urtea tentu eta zuhurtasun handiz hasi zuten.

Debabarreneko sei agerkarien argitaratzaile gehienak<sup>23</sup> euskara elkarte eta kultur elkarteak ziren 2009an eta guztiek elkarteen baitako aurrekontu komunak zituzten. Batez ere astekariak lotura handia zuten euren euskara eta kultur elkarteekin. Hau da, ez zuten ulertzen aldizkaria elkarerik gabe eta elkartea aldizkaririk gabe. Hor-taz, aurrerantzean egin beharreko ahalegin ekonomikoak aldizkariaren eta elkar-tearen etorkizuna ziurtatzeko izango zirela aitortzen zuten.

## 2.6. Etorkizunari so

Erritmo ezberdinak tarteko, sei agerkarientzako edizio digitala erronka zen 2009an. Debabarreneko aldizkarietan ziharduten kide eta langile guztiek argi zuten etorkizunean edizio digitala eta papera uztartu behar zirela eta zalantza izpirik gabe onartzen zuten sareak eskaintzen zituen aukerak eta abantailak asko zirela: irakurle berriak lortu edo paperak dituen gastuak saihestu, besteak beste. “Interneten egoteak badauzka abantailak, nabarmenak gainera: irakurleak gehiago dira, paperezkoak bezalaxe dohainik izaten jarraitzen dute, baina ekoizlearentzat merkeagoak, ez baitira imprimatu behar, ez eta banatu behar” (Meso, 2008: 57). Are gehiago, sinetsita zeuden etorkizuna neurri batean hortxe zegoela, baina era berean oso argi zuten publizitatean ordura arte egindako saiekerek ez zutela emaitza ekonomiko onik eduki. “Internet da informazioaren ardatza gaur egun ere, baina konpontzeko dagoena negozio eredu da. Oraindik ere paperak ematen ditu euroak eta. Handia da, hala ere, eurorik apenas ematen ez duen hedabidea izatea komunikazioaren ardatza” (Arantzabal, 2008: 109).

Interneten publizitateak dirua eman bitartean, paperean sinesten zutela aitortu zuten eta bost urteko epean ez zuten ikusten euren aldizkaria sareko produktua soilik bihurtuko zenik, Debabarreneko herrietan jende askok eta askok oraindik 2009an paperarekiko zuen lotura oso handia baitzen. Horregatik aldizkarietan ari ziren profesionalak modu irekian aitortu zuten interneten edizio digitala landu eta lehenetsi behar zela, baina papera alboratu gabe, paperak oraindik ere funtzio garrantzitsua betetzen zuelako. “Papera duindu behar du profesioak. Paperaren beharra erakutsi behar du profesioak. Profesionalak duindu behar du papera, beste hedabide-motekin lehiatu gura badu. Jendeari erakutsi behar dio profesionalak merezi duela gai jakin batean sakontzea, eta ez dela nahikoa titularrekin edo telebistako albistegien hogeita hamar segundoekin asebetetzea. Hori, albistearekiko lehen harremana baizik ez dela. Zorionez, albisteak tripa gehiago duela bere baitan” (Basterretxea, 2008 b: 135).

Arestian aipatu bezala, 2003an Debabarrenean bateratze prozesu baterako lehenengo urratsak eman ziren. Egoera, ordea, oso bestelakoa zen 2009an. Aldizkari txiki eta guztiz profesionalak ez zirenek (*Pil-pilean*, *Drogetenitturri*) ez zuten zalantzarik egiten modu profesionalago batean aritzeko eta erronka berriei eusteko modu bakarra 2003ko bidea berreraikitzea zela. Aitzitik, astekariak (... *eta kitto! eta Barren*) ez zuten behar hori ikusten etorkizunean. Ekimen zehatz

<sup>23</sup> Guztiak Mutrikuko *Kalaputxi* izan ezik. *Kalaputxi*, Karenka Komunikazio Elkarteak kaleratzen zuen.



eta puntual bateratuak komunean egiteko ez zuten inolako arazorik ikusten, baina etorkizuna bakarka irudikatzen zuten, ez ordea, Debabarrenarako egitasmo komun baten baitan.


“Nork berea defendatzen du hemen eta berari balio izan dion formula babesten, baina oker dago formula bakarrak denerako balio lezakeela pentsatzen duena. Herri-komunikabideei dagokionean, produktu independenteak, beren artean elkartu bai, baina burujabe izango direnak defendatuko ditut nik, egitasmo handi bateratuetan ez baitira herriz herriko beharrak kontuan hartzen, indarrak gehien duten herriek egiten dute motor lana, edo komunikabide handiek. Beraz, mapa horretan aukera ezberdinak izatea aberasgarria dela deritzot, elkarrekin antolakuntza-modu bat izan dezaketena; edo, noski, beren kabuz bizi ezin direnak elkartzea ere ezinbestekoa izango da” (Agirre, 2008: 51-52).

Zailtasunak zailtasun eta 2009 eta 2010ean sektore bereko herri-aldizkariak desagertu<sup>24</sup> ziren arren, Debabarreneko aldizkarietan ari ziren profesionalek etorkizuna ez zuten inolaz ere kolokan ikusten hurrengo 5 urteetan.

### 3. Ondorioak

*Kazetaritza-generoak 2009an:*

#### 7. Grafikoa. Kazetaritza-generoen batzbestekoen erkaketa.




*Iturria: Autoreak landua.*

1. Debabarreneko komunikazio-sare euskalduna osatzen zuten sei aldizkariak eutsi egin zieten euren betiko kazetaritza-generoei. **Informazio, iritzi eta zerbitzu aldizkariak** ziren 2009an Debabarreneko komunikazio-sare euskalduna osatzen zutenak.

<sup>24</sup> Geu hilabatekariak (Gasteiz) 2009ko abenduan kaleratu zuen bere 202 eta azken zenbakia 17 urte aldizkaria argitaratu ostean. Azkoitiko *Maxixatzen* astekariak 2009ko maiatzean behin behinekoz eten zuen proiektua. Zarauzko *Txaparro* hamabostekariaren 2010eko martxoko 125. alea izan zen azkena. Aldizkari horien guztien desagertzearen arrazoia ekonomikoa izan zen. Diru-laguntza publikoen jaitziera, publizitatearen beherakada eta egoera ekonomiko larriaren ondorioak.

## 8. Grafikoa. Gaien batzbestekoen erkaketa.



*Iturria: Autoreak landua.*

2. Gizarte gaiak eta kultura ziren gaitegiaren zutabe nagusiak 2009an. Gaien diagnosi horretan argi ikus zitekeen Debabarreneko sei kazetetan jorratzen ziren gaiak, herritarren eguneroko bizitza oso kontuan hartzen zutela, berau zela euren gaitegiaren muin nagusia, aldizkarietako protagonista nagusiak herritarrak bilakatzen baitzituzten. Politika eta ekonomia kontuak, ordea, bigarren mailan agertzen ziren herrietako prentsan, nazio mailako eguneroko kazetetan ez bezala, non politika eta ekonomia lehen mailako gaiak ziren.
3. Debabarreneko komunikazio-sistema profesionalizatuz joan zen urteekin. Gero eta langile kualifikatu gehiago zegoen idazgeletan eta horrek eragin zuzena izan zuen edukietan: kazetaritza-generoen artean oreka handiagoa zegoen eta akademikoki hobeto lantzen zituzten eta gaitegia selektiboagoa eta anitzagoa zen. *Kalaputxi* hilabetekaria salbuespena litzateke guztien artean, langile profesionalik gabe funtzionatzen zuelako eta borondatez ari ziren langileek osatzen zutelako lan-taldea. Era berean, borondatez ziharduten kideen artean ez zegoen Komunikazio Zientzietan lizentziaturik ezta gestioaz eta ekonomiaz arduratzen zen profesional kualifikaturik ere.
4. Aldizkari gehienetan benetako lan-baldintza duinak lortzeko asko falta zen 2009an. Lan-baldintzen gaia, gainditu gabe zuten ikasgaia zela esan daiteke. Horrek aurrera begira ausardiaz jokatzeari eskatzen du, langilerian diru gehiago inbertituz eta gaiari lehenetsia emanez, langileak proiektu horietako zutabe eta oinarri nagusi direlako. Langilerik gabe, ez dago enpresarik ezta produkturik ere. 20 urteko esperientziak erakutsi bezala, hasieratik lan-baldintza kaskarrekin hasten diren egitasmoei zailtasun handiak izaten dituzte gerora gaia ganoraz eta modu duinez konpontzeko.
5. Debabarrenean 2006an web orria zuten bakarrak *...eta kitto!* eta *Barren* baziren ere, 2009an gehienek jauzi hori egina zuten. Bi euskarri izateak

eragin zuzena izan zuen edukiak kudeatzeko orduan. Alegia, sarean eta paperean landuko ziren edukiak eta generoak birplanteatzea ekarri zuen. Agerkari batzuen eta besteen arteko aldea nabarmena zen alor horretan, baina ezberdintasunak ezberdintasun, Debarareneko herri-aldizkariak papera zuten ardatz nagusi 2009an. Gogor eusten zizkieten euren hasierako erroei eta ez zeuden prest papera alde batera uzteko.

6. 2009an, Debarareneko herri-aldizkariak erreferente izaten jarraitzen zuten herri ezberdinetan. Urteak pasa ahala, herri guztietako aldizkariak euren tiradak handitzeko beharra ikusi zuten publikoaren eskaerari erantzun ahal izateko.
7. 2009an ez zegoen Debararenean etorkizuna egitasmo bateratu batekin eraikitzeke inolako asmorik eta gogorik ere. Hilabetekari eta hamabostekariak elkarrekin egin behar zela bidea ikusten bazuten ere, handienek ez zuten halako premiarik sumatzen, besteak beste elkarte eta agerkarien artean zegoen lotura apurtzeko prest ez zeudelako. Beraz, agerkariak euren euskara elkarte eta kultur elkarteekin ordura arte mantentzen zuten lotura oztopo bilaka zitekeen soilik komunikabideen arteko ekimen komuna martxan jartzeko orduan. Nolanahi ere, Debarareneko euskarazko komunikazio-sistemaren etorkizuna bakarkakoa izango zela aurreikus zitekeen. 2003an eta 2009an egoera ez zen inondik inora berbera eta ez zegoen baldintzarik bateratze prozesua emateko.

#### **4. Eskualderako jauzia gertuago 2011an**

- Debarareneko komunikazio-sistemaren etorkizuna diseinatzeko 2007ko doktore tesian egin ziren proposamenak guztiz baliogarriak dira egun. 2003an eskualderako ekimen multimedia bateratua sortzeko egin zen lehenengo saiakeratik 8 urte pasa direnean, berregituratze-prozesu baten beharra sumatu da Debararenean eta horixe da etorkizuna diseinatzeko aukera egokiena eta guztientzat mesedegarri. Bateratzearekin izango dute zer galdu baina onurarik ez da faltako. Handien aurrean, txikien indarra batasuna delako, elkartasuna eta herritarren atxikimendua.
- Gertuko esperientziak horrela frogatu dute, bailaran hedatuta erreferentzialtasuna lortu dutelako. Halaber, tokian tokiko prentsari leporatzen zaion atomizazioa aldentzen lagunduko luke; bailaran dagoen aldizkari kopurua arrazionalizatuko litzatekeelako, kalitatezko egitasmo hobearen ortuz.
- Lan honetan Debarareneko errealitatea islatu nahi izan da, baina Euskal Herrian sektoreak bizi duen egoeratik oso hurbil dagoela esan daiteke.
- Artikulu hau kaleratu bitartean aldaketak izan dira Debararenean. 2011. urtea giltzarri izan da Debarareneko euskarazko komunikazio-sistema berrantolatzeke. 2010eko irailean Elgoibarren egin zen bilera batek ateak ireki zizkion berriz ere eskualdeko egitasmo bateratu bati eta Debararenen eskualdean bertako euskarazko hedabideak garatzeko aukerak berraztertuta dira. Oraingoan herrietako euskara elkarte eta aldizkarietako

ordezkariz osatutako talde eragile bat eratu da lanerako. Talde eragile horrek aholku talde baten iritziak izan ditu bidelagun gogoeta honetan eta Goienako dinamizatzaileak azterketaren bideratzaile izan dira. Ia urtebeteko eztabaida eta gogoetaren ostean, 2011ko irailaren 13an talde eragileak landu eta adostutako proposamena<sup>25</sup> aurkeztu zitzaizen euskara elkartei, horiek euren onespena eman zezaten. Komunikabide bateratuaren proposamenak bi hanka nagusi izango lituzke, papera -seguruenik asteko maiztasunarekin- eta uneoro berritzen den edizio digitala, biak eskualde mailakoak. Behin onespena lortuta, lanari jarraipena eman beharko zaio, baina 2012ko udaberrian Debarreneko herri-aldizkariaren edizio digitala martxan izatea ez da amets hutsa dagoeneko, gero eta gertuago ikus daitekeen errealitatea baizik.

### Erreferentzia bibliografikoak

- AGIRRE, Unai (2008). “Txostena” ASKOREN ARTEAN (2008). *Euskara hedabideetan*. Gasteiz: Eusko Jaurjaritza, 47-58 or.
- AIESTARAN, Alazne (2009). *Deba Barreneko Euskarazko komunikazio-sistema: tokian tokiko aldizkariaren kazetaritza-genero eta gaien analisisia 2000-2004 bitartean*. DVD. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- AIESTARAN, Alazne (2007). Deba Barreneko euskarazko komunikazio-sistema. *Uztaro*, 62. zenb. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 81-97. or.
- ALVAREZ-GAYOU, Juan Luis (2003). *Cómo hacer investigación cualitativa. Fundamentos y metodología*. Barcelona: Paidós.
- ARANTZABAL, Iban (2008). Tokiko hedabideek etorkizun handia dute. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 68. zenb. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 103-114 or.
- ARANZABAL, Joxe (1999). Euskarazko herri prentsaren bilakaera. *Euskonews & Media*, 26 zenb. [<http://www.euskonews.com/0008zbn/frmedia.htm>] 2010-03-2.
- ARANZABAL, Joxe (2006). “Bloga eta Papera”. *Euskonews & Media*, 330. zenb. [<http://www.euskonews.com/0330zbn/gaia33001eu.html>]. Kontsulta data 2010-02-22.
- ARMENTIA, Jose Ignacio; CAMINOS, Jose Maria eta PALAZIO, Gorka J. (2000).

<sup>25</sup> Txostenak honako 12 puntu hauek biltzen ditu:

- 1- Debarreneko eragile eta hedabideak. Gaurko egoera
- 2- Orain arte jarraitutako estrategien berrikuspena eta balorazioa
- 3- Azterketaren helburua
- 4- Eginkizuna, baloreak eta ikusmira
- 5- Erabiltzaileen iritzia; aholku taldea
- 6- Kanpo faktoreen azterketa
- 7- Amia matrizea
- 8- Lehen ondorioak
- 9- Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa
- 10- Ardatz estrategikoak
- 11- Kronograma
- 12- Behin behineko antolakuntza ereduak

- Kazetaritzaren hasi-masiak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- BASTERRETXE, Jose Inazio (2008:a). Arto gutxitan, kalabaza jaki (Gizarte-komunikazioa, euskaraz eraikitzen). *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 68. Zenb. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 75-83 or.
- BASTERRETXE, Jose Inazio (2008:b). "Txostena". ASKOREN ARTEAN (2008). *Euskara hedabideetan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 121-141. or.
- CAMACHO, Idoia (1999). *Herri-aldizkariaren funtzioak euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999* doktore-tesia. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- COLLER, Xavier (2000). *Cuadernos Metodológicos, estudio de casos 30*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- DIEZHANDINO, María Pilar; COCA, Cesar (1997). *La nueva información*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- GARMENDIA, Elixabete (2005). "Euskal kazetaritza modernoaren pausajea: ukapenetik izatera". ASKOREN ARTEAN (2005). *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- IRIGOIEN, Jose Manuel (1992). Ttipi-ttapa. *Jakin*, 69. zenb. Donostia: Jakin, 103-113. or.
- IRIZAR, Mikel (2001). *Goiena esperientzia, eskualdeko talde multimedia baten sorrera*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- IRIZAR, Mikel (2003). Herri-aldizkariak: balantzea eta etorkizuneko erronkak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 48. Zenb. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 53-65 or.
- MESO, Koldo (2008). Euskarazko hedabideak interneten. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 68. zenb. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 51-61 or.
- LARRAÑAGA, Jotxo; GABANTXO, Miren; ARANGUREN, Asier (1997). Sei herri aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat. *Mediatika, cuadernos de medios de comunicación*, 6. zenb. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 15-40 or.
- ZABALETA, Iñaki (1997). *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.